

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5996

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 17koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez handitzen baita agindu honetan adierazitako zenbatekoa: Eskola-garraioko banakako dirulaguntzak, desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako, ikasle horiek dagoen ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleituta itundutako ikastetxe publiko edo pribatuan eskolatuta badaude eta sailaren eskola-garraioa erabili ezin badute.

Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 28ko Aginduaren bidez, desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia egin da, ikasle horiek dagoen ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleituta itundutako ikastetxe publiko edo pribatuan eskolatuta badaude eta sailaren eskola-garraioa erabili ezin badute.

Agindu horretan, baliabide ekonomikoei buruzko 3. artikuluan, hau dago ezarrita:

1.– Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 3.773.000 euro bideratuko dira.

2.– 1. paragrafoan adierazitako zenbatekoa handitu ahal izango da, laguntzak jasotzeko esku-bidea duten eskabideen zenbatekoa kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak konprometitu gabeko aurrekontu-baliabideen arabera. Halakorik gertatuz gero, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hezkuntza Sailak horretara bideratutako 3.773.000 euroko guztizko zenbatekoa ez da nahikoa eskabide guztiei erantzuteko; beraz, beharrezkoa da zenbateko hori handitzea.

Hori dela eta, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak proposatuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 367.000,00 euro gehitzea Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 28ko Aginduaren 3.1 artikuluan kontsignatutako zenbatekoari; horrenbestez, deialdi horretara, guztira, 4.140.000,00 euro bideratuko dira.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 17a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.